

Forges umorista grafikoaren "Los Forrenta Años" erakusketa ireki dute Bizkaiko Foru Liburutegian, Bilbon

Bilbon kokaturiko Bizkaiko Foru Liburutegiak Antonio Fraguas de Pablo "Forges" (Madril, 1942) espainiar umorista grafiko handiaren lan grafiko onenen "Los Forrenta Años" izeneko bilduma eskainiko du urriaren 15era arte.

BILBAO - Lan horiek aurretik ere ikusgai egon dira Bizkaiko hiriburuan, hain zuzen ere, Bilboko Barrea Umorezko Literaturaren eta Umore Grafikoaren Nazioarteko I. Astea, irailaren 22tik 26ra.

Bizkaiko Foru Aldundiko iturriek jakinarazi dutenez, guztira, 50x50 tamainako markodun 50 bineta dira erakusketak biltzen dituenak. 'Los Forrenta Años' erakusketa Francoren diktadurako 40 urteen umorezko satira da. Espainiako umore grafikoaren klasikotzat hartzen da erakusketa hori eta, besteak beste, Francoren eta haren ministro batzuen (Fraga, Arias Navarro), Hitler, Eisenhower eta Mussoliniren irudiak agertzen dira, Forgesen ohiko blasilloekin, funtzionarioekin eta naufragoekin batera.

'El humor que venció a la censura' da umorista handiaren bineten bilduma honek duen gaia, eta ezin hobeto erakusten du umoreak gizartea aztertzeke eta kritikatzeko duen indarra.